



EBAZPENA, 2024ko maiatzaren 9koa, Hezkuntza saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena. Horren bidez hainbat ikastetxetan hutsik dauden behin-behineko lanpostuak zehazten dira; lanpostuok Bigarren Hezkuntzako, desagertzean dauden Lanbide Heziketako irakasle teknikoetako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan daude, eta kidego hauetakoak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziako Irakasle Espezialisten Kidegoetako

Hezkuntza sailburuaren 2023ko azaroaren 22ko aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren menpeko ikastetxeetan lanpostuak betetzeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza-kidegoetako funtzionarioen artean autonomia erkidego mailako lekualdatze-lehiaketa deitzen duenak, bigarren oinarrian xedatutakoaren arabera (EHAA 2023ko abenduaren 1a),

Horren ondorioz,

XEDATU DUT:

Lehen artikulua.- Argitara ematea Ebazpen honen eranskinean zein behin-behineko lanpostu bete behar diren Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Katedradun eta Irakasleen Kidegoetako, eta desagertzean dauden Lanbide Heziketako irakasle teknikoetako, eta Lanbide Heziketako sektore bereziako irakasle espezialisten arteko lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzeko.

Bigarren artikulua.- Interesatuek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute behin-behineko lanpostu hutsen zerrenda horren kontra, 5 laneguneko epean, Hezkuntza sailaren web orrian argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

**BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA**